

Doneztebeko udalak futbol zelaiko argiteria aldatu du

Doneztebeko udalak futbol zelaiko argiteria LED teknologiara aldatu du, energia-eraginkortasuna hobetzeko, energia-kontsumoa murrizteko eta argiztapen egokiagoa, jasangarriagoa eta seguruagoa bermatzeko.

Energia-eraginkortasuna futbol zelaian proiektua Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak kudeatutako 7119.01 Nafarroako PEPACen Tokiko Garapen Partehartzailea 2023-2027 laguntzaren esparruan gauzatu da eta 35.740,01 euroko inbertsioa izan da. Horretarako 25.018,01 euroko dirulaguntza Cederna Garalur tokiko ekintza taldeak eman du, 2023-2027 Landa Garapenerako Estrategiaren esparruan, eta Europar Batasuneko Landa Garapenerako Funtsak (LGENF) % 45ean eta Nafarroako Gobernuak % 55ean kofinantzatzen dute.

